

Hizkuntza ohiturak aldatzeko ekimena

800 hernaniarrek hartu dute parte euskarari eusteko erronkan

Ezohiko egitasmoa dute martxan Hernanin otsailetik: urte amaierara bitarte, orain arte dituzten hizkuntza ohiturak irauli eta harremanak euskarara ekartzeko ahaleginean ari dira ehunka herritar. Hilero, 100 norbanako gehitzen dira ekimenera eta dagoeneko 800 herritarrek baino gehiagok heldu diote desafiari.



Igor Agirre

@igoragirre

ARGAZKIAK: EUSKARA ARI DU EKIMENA

Badira bost urte Euskara Ari Du ekimena martxan jarri zutela Hernanin. Euskararen erabilera bultzatzeko asmoz sortu zuten eta 2016an indar-proba deitu zioten hilabete eta erdiko egitasmoa jarri zuten martxan taldeak. Astebeteko txandatan guztira 1.800 pertsonak hartu zuten parte euskarari eustea xede zuten ekimen hartan. 2016. urteko ekin-tza hura, ordea, pizgarria izan zen hernaniar askorentzat eta hasitako bide hari jarraipena eman behar zitzaioela ikusi zuten hainbatek.

Herritar talde batek esperientzia hari nolako jarraipena eman pentsatzeari ekin zion. 2017an zehar egosi zuten egitasmoa eta 2018ko otsailaren 3an jarri dute martxan, *Baietz Hernanik!* izenpean. Abenduaren 23a bitarte, gutxienez hilabeteko iraupena izango duen erronka pertsonala hautatzen dute norbanakoez, euren hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin. Hilabetero 100 lagun berri erronkara biltzeko helburua jarri dute egitasmoan eta momentuz, hasierako helburua betetzen ari dira: otsailetik urrira, 800dik gora erronkalaririk bildu ditu *Baietz Hernanik!*. Ekimenaren antolakuntzan diharduen Malores Etxeberriaren iritziz erritmo onean ari dira erronkalaririk lortzen: “Helburua zen hilabeteko 100 parte-hartzaile be-

rriri lortzea eta helburu hori goitik jarri genuen, lortzea ikaragarria izango zela pentsatuz”.

Erronkalaririk bakoitzak helburu pertsonal bat hautatzen du izena ematerako garaian: Hizkuntza ohitura pertsona zehatz batekin aldatzea izan daiteke asmoa edo xede talde batekin; orain arteko hizkuntza ohitura euskarara ekartzeko da hautatu beharreko erronka. Aldi berean, euskaraz hitz egiten ez dakitenek ere parte hartu dezakete egitasmoan, helburu gisa bigarren batek berari euskaraz egiteko eskatzea jarriz. Momentuz, egitasmoko parte-hartzaileen %89 da euskaraz hitz egiteko gai eta %11k euskara ulertzen du baina zailtasunak ditu hitz egiterakoan. Hilabete pasa ostean, jarraipen inkesta labur bat bidaltzen diete erronkalariei Euskara Ari Du elkarteak eta bertan, erronkarekin jarraitu edo erronkaz aldatu nahi duten aukeratu behar dute.

Parte-hartzaileek, beraz, helburu espezifikoa bat hautatzen dute ekimenean parte hartzea erabakitzen dutenean. Helburu hori izan daiteke eguneko 24 orduetan eta edonorekin euskarari eustea, edo pertsona jakin batekin duen hizkuntza ohitura aldatzea, bakoitzak berak aukeratutako erritmoan. Erronkari ekin diotenen gehienek, %72,7k,

hizkuntza ohitura pertsona talde edo kolektibo batekin aldatzea hautatu du, pertsona konkretu bat aukeratu beharrean. Orain arteko parte-hartzaileek erronkak zein eremutan hartu dituzten aztertzean, ikusi daiteke %29,3k harreman posible guztietan euskaraz egitearen aldeko hautua egin duela. Horren ondoren, lankide, bikotekide, lagunarte eta senitartekoak izan dira gehien errepikatutako eremuak, hurrenez hurren.

“Ohiturak aldatzea ez da erraza”

Parte-hartzaileei aholku saio bat eskaintzen diete Euskara Ari Du-koek erronkari ekin aurretik. Bertan, zein zailtasun topatu ditzaketen aztertzen dute eta gomendioak ematen dizkiete. Hilabetero, jarraipen saioak ere egiten dituzte. Saio irekiak izaten dira azken hauek eta oso arrakastatsuak ez zirela ikusita, bertaratzeko deia espresuki erronkan ari diren hogeitaz lagun zuzenean luzatzea erabaki zuten.

Jendearen balorazioekin eta iritziekin oso gustura daude elkartearen. Hala ere, ariketa parte-hartzaile guztientzat dela zaila azpimarratu nahi dute: “Denentzat izaten da zaila erronka. Ia denek esaten digute hasieran kostatzen egiten dela eta halaxe da, ez da tontakeria bat; ohitura bat aldatzea ez da erraza, baina lortu



Urte osoz ari direnez erronkan, hernaniarrak tarteka biltzen dira elkar indartzeko, eta nola ez, erronkalari kopurua harro erakusteko.

daiteke" azpimarratu du Malores Etxeberriak. "Gehienek esan digute oso kontziente egin direla gaiaz, horretarako ere balio du egitasmo honek" gehitu du. Parte-hartzaileek hizkuntza ohiturak aldatzerakoan zailtasun handienak gertukoekin dituzten pertsonekin dituztela ikusten du elkarteko dinamizatzaile Leire Otxotorenak: "Familiako kideekin eta bikotekidearekin zailagoa izaten dela esan digute. Badira lortu dutenak, baina lortu ez dutenak ere badaude".

Ekimeneko erronkalarien artean badira hernaniarrak ez direnak. Leire Otxotorenak egitasmoak beste herrietako jendea ere ukitu duela dio: "Herriko enpresetara ere zabaldu dugu ekimena eta Hernanin lana egiten duten kanpoko jendea ere animatu da erronkalari izatera". Izan ere, euskalgintzak begiz jota duen eremu garrantzitsuetako bat da lan mundua eta hor ere bere bidea egi-

tea lortu du *Baietz Hernanik!* Ekimena finantzatzeko laguntza bila jo dute hainbat enpresetara eta egitasmoarekiko interesa piztu zaie hainbati. "Enpresek ikusi dute beraientzat baliagarri izan daitekeela egitasmoa eta irailetik aurrera buru-belarri sartu dira, langileak lan eremuan hizkuntza ohiturak aldatzera animatuz" azaldu du Etxeberriak.

Egindakoari jarraipena ematearen beharra

2018ko egitasmoak erronka pertsonalak izan badira ere, kolektiboki jende asko ideia baten baitan mugitzeak ere bere garrantzia duela uste du Malores Etxeberriak: "Desafio indibidualak izateak inurri lana ematen dio egitasmoari, egunerokotasunean egin beharra. Kolektiboak, aldi berean, babesa ematen du, erronkalaria bakarrik dagoela ez sentiarazteko balio du".

Horregatik, ekimena bestelako ekitaldiekin ere girotu eta babestu nahi izan dute orain arte. Kirola, generoa zein beste hainbat arlo euskararekin lotzeko hitzaldiak antolatu dituzte eta urte amaiera bitarte badituzte hainbat hitzordu finkatuta. Azarorako mintzodromoa antolatu dute Udal Euskaltegiarekin batera eta abendurako, ekimena amaitzeko ekitaldia egingo dute. Aurrera begira, Euskaraz Ari Du elkarteak ere badu erronka handi bat Leire Otxotorenaren esanetan: "Gure oraingo erronka, talde bezala, abendutik aurrera zer egin pentsatzea da. Honi jarraipena nola eman pentsatu behar dugu". 2016ko egitasmoak sortutako olatuari emandako erantzuna izan da aurtengoa eta aurtengoak, dagoeneko, sortu du beste bat. Ikusteke dago zein izango den hurrengo desafia. ■

BABESLEA: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA